

HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza
«Txillardegi»

1996 urtea amaitzera doan honetan, eginahal berezia egin du BATen idazkaritzak, euskal giroan tema bihurtua den *Plangintza Orokorren* berri ematen. Ale hau, horretara, Plangintzan ari diren teknikariei eta herri-mailan euskararen berreskurapena bultzatu edo bideratu nahi luketen euskaltzaleei laguntza ematekotan mamitu da.

Arrazoin desberdinengatik, **Josune Ariztondo** Hizkuntza Politikarako Sailburuordearen txostenak merezi du aipamen berezia. **Euskararen Normalizazio bidean urrats berriak** izeneko lanak patxadazko irakurketa merezi du; eta ondoko egunotan ere berorretara itzuli beharko dugu agian.

Oro har garrantzitsu hau hasteko: Josune Ariztondok gure hizkera bera erabiltzen du. Alor hau ongi ezagutzen duela erakusten du. Eta urtetan barrena euskararen alorrean jasan behar izan ditugun erdal sasi-jakintzuen gaitzaldi luzea jasan ondoren, oso esperantzagarria da. Baskongadetako Administrazioa gure hizkeraz mintzo da.

Euskararen kalitate eskasaren arazoa euskararen zabalkundeak berak ekarri duela esatea, guztiz zuzena da; eta ezagutzaren mailan, halere, erabilpenarenean baino hobeki goazela ere bai. «Aurrera goazela» egia da, zailantzarik gabe; eta «urte gutxitan» harrigarritzko aurrerapenak egin ditugula, norbaiti agian gaitzi bazaio ere, zuzena. Ahaztu egin bide zaigu

euskararen egoera orain dela hogeit hamar urte nolakoa zen...

Zuhurtziaren beharra azpimarratzea ere, egoki dator. Ez du balio (kaltegarri ere gerta daiteke, hobe) esparru guztietan batera hordago-ka hastea: «oinarrizko beharrian espezifikoei erantzungo dien hizkuntz politika bultzatu» behar da; beharrezko edo premiatsuenetatik hasita. Hau ere, egia.

Badirudi UZEIri buruzko jarrera batzuk (aspaldiko «abundante peonaje» delako harenak, eta beste) atzean gelditu direla. UEMari buruz ere oso jarrera ona agertzen da Ariztondo anderearen txostenean: «udal euskaldunekin... plan berezia»ren beharra aipatzen baita. Ipartarren hitzez esateko: «Agian ba!». Ez baitaude urrun, organigraman bederen, UEMari buruz oso berriki susmo itsusiak zabaldu dituzten buruzagiak.

«Sistematik kanpo» zeuden AEK eta IKari buruz ere, hitz esperantzagarriak.

Bide beretik, agintzak bederen ez dira falta **Osakidetzari** eta **Ertzantzari** buruz. Bigarren honen euskalduntze planaz, data zehatza eman zaigu: 1997ko abuztua. Eta beharrezko erabakiak, «dekretu bidez» hartuko omen dira. Wait and see!

Berri ona ere (ezaguna, egia esan) 1999ko VIII. Plangintza Kongresoari buruzkoa. Eta txalogarria ere **Toponimiaren** alorraz seriotan hartzekoa.

Ariztondoren idatziak betetzen baldin badira, giroa **aldatu** egin dela esan beharko dugu. Ez dugu zauri minberetan zirikatatu nahi. Baina **Egunkariak** berak jasan duen bazterketa ankerra ez dute euskaltzaleek aisa ahaztuko.

Oso interesgarria bide bertsutik, nahiz lan honetan Katalu. a izan aztergai, **Isidor Mari** ezagunarena. Katalanaren aurrerapen harrigarria ezagututa, oso bidezkoa da prozesoren gidariengana argi bila jotzea.

1983ko Normalizazio Legea «kontrako botorik gabe» onartu zela gogorazten digu Marik. Eta egia da han inork ez duela zalantzan jartzen katalantasuna, **katalaneraz mintzatzea** besterik ez dela.

Eraso apal batzuen berri ematen du autoreak (34.art.ari buruzkoa, adibidez). Baina Katalu. a ez da Euskal Herria hizkuntzaren arazoan. Kideren bat aurkitzekotan Esloveniari joan behar genuke; edo, atzerago, XIX. mendeko Hungariara. Katalu. ak beti izan du nazio-hizkuntzaren kontzientzia. Guk, oraintsu arte, sekula ez. Hauxe da egia mingotsa.

Katalu. ar gazteen artean, horretara, %97k ulertzen dute gaur katalanera; %78k hitzegiten, eta %63k idazten. 1987an 4.145 liburu argitara ziren katalanez (1.300en bat gurean?); telebista-kateetan %50 erabiltzen da katalana; eta prentsaren %12 argitaratzen da bertako hizkuntzaz. Gurean **Egunkariak** eusten dio, bakar-bakarrik, apostu erdaldun guztien zemari.

Katalanek, horretara, tema bakar hau dute gaur: «La difusi de l'us social». Eta helburu hau dute: «instituzio publiko eta pribatuek ekintza publiko **guztietan** erabiltzea». Urrunsko gaude!

Katala. ak **Quebec** ere gogorazten du. Organizazio-eskema zehatzak, Administrazioaren parte hartze orokorra eta zabalagoa. Badugu, bai, Katalu. a-tik, urrundik bederen, zer ikasirik; eta katalanek badakite, Marik berak aitortzen duenez: «gure esperientziak beste hizkuntz komunitateentzat interesgarria den zerbait izango duelakoan nago».

«Euskararen unibertsoa» delakotik datorkigun **Plangintza Orokor baten Proposamenak**, berriz, halako Plan erraldoien kutsua du: Ideia nagusiak, Helburuak, Faseak.

Helburua ezin zabalagoa da: «alor guztietan» eragitea, «lurralde osoan», «instituzioen partaidetza» bermatuz. Eginkizun gaitza «**Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua**»ren eskuetan jartzen dena.

Explizitoki Katalu. ako eredu hartua duenez, Isidor Mariren lanaren antza aurtkituko dute irakurleek; batez ere orain dela bi urte (1995ko Plangintzarena) hartutako bidea.

Ez da ideia desegokia Katalu. aren bidea orpo orpo ezagutzea eta jarraitzea.

Beharbada ohar hau egin genezake (eta ohar hau artikulua guztietan erabil daiteke, egia esan): izkutatu, edo gutxietsi bederen, egiten direla erbakizunen izari **politikoa**. Nola egin daiteke «etorkin berrien integrazio osoa», integrazio horren kontra sakon-sakonetik ari diren talde politikoa eta intelektuaren lan etengabea salatu gabe? Nola lor daiteke «eskubide indibidual eta kolektiboen sendotzea», Konstituzioaren barruan?

«Oinarrizko formazio-programak lantzea beharrezkotzat jotzen du» txostenaren egileak. Gisa denez. Baina ETB2az zer egin behar dugun ez du aipatzen.

Hitz batez, plangintza «apolitiko» eta «kontsentsuatu»aren joera utopikoa bide dago izkutuan. Hizkuntza arazo larriak, tirabirarik eta tentsiorik gabe konpontzea posible balitz bezala. Hots, zoritxarrez, hau ez da Katalu. a eta ez Quebec.

Beste maila **taktiko** eta konkretuago batean, oso interesgarri deritzogu I. aki Markoren lanari: «**Mikroplangintza**» plana Hernaniko «Club Deportivo Hernani» delakoan.

Hernani herria, egoeraren aldetik, erdibidekoa izanik: industri langilegoa, etorkizun mordo, erditsua euskalduna (%48,5 euskaldunak, vs. %51,5 erdaldun elebakarrak), Marko lankidearen lanak argibidea eman diezaieke agian antzeko asmotan ari diren mila euskaltzaleri.

Planak 21 elkarte hartu ditu barruan; eta diagrama eta eskema pilo bat eskaintzen dio irakurleari.

Egokia denez garrantzi handia ematen dio egileak abiapuntua ahalik eta zehazkienik ezagutzeari. Eta, berriro ere, Katalu. a du argi-iturritzat: IN-DEXPLA, eta abar.

Laugarren erskinak, bereziki, egoera eta plangintzaren aurrerapena zenbakitan neurtzeko metodoa eskaintzen duenez, oso erabilgarria izan daiteke anitz herri-mailako planetan.

Eta besterik gabe, laburtzapen honetan utziko dugu aurkezpen hau.